«Chejov vs. Shakespeare», gatazken gaineko posta bidezko hausnarketak

Euskal Herriko zortzi idazle nazioarteko beste zortzirekin gutunak trukatzen aritu dira azken urtean, «Chejov vs. Shakespeare» proiektuaren baitan. Esperientziak jasotzen dituzten argitalpenek, topaketek eta ekimen artistiko batek osatzen dute gatazken gaineko gogoeta hau.

Amalur ARTOLA | **DONOSTIA**

Amos Oz idazle israeldarraren gogoeta batetik abiatzen da Donostia 2016ren "Chejov vs. Shakespeare" proiektua: «Ekialde Hurbilekoaren antzeko gatazketan bi literatur ikuspegik egiten dute bat: alde batetik, Shakespeareren justizia poetikoak, eta bestetik, Txekhoven giza justizia tristeak». Lehenengoan, ohorea gailendu eta inork amore ematen ez duenez, «agertokia odolez beteta» geratuko litzateke; bigarrenean, desadostasunak eztabaidatu eta etxera «etsita baina bizirik» itzultzen dira.

Donostia 2016k hamasei idazle aurrez aurre jarri ditu, oinarri horretatik abiatuta gatazken gainean hausnar dezaten: urtebetean zehar, posta arruntaren bidez gutunak trukatzen aritu dira zortzi euskal idazle nazioarteko beste hainbatekin, eta bikoteko izan duten truke horrekin liburu bana argitaratuko dute azaroan zehar, Erein argitaletxearekin elkarlanean. Horrez gainera, hamasei idazleak Donostian izango dira, astelehenean hasiko den topaketa baten barnean. Horietan, Gure Artea saria jaso duen Mabi Revuelta artista plastikoak publikoarekin elkarreragina sortuko duen dinamika bat garatuko du.

Ekimenean parte hartu duten euskal idazleak Arantxa Urretabizkaia, Eider Rodriguez, Harkaitz Cano, Luisa Etxenike, Fernando Aramburu, Bernardo Atxaga, Laura Mintegi eta Angel Erro dira. Gainerako idazleak, Hector Abad kolonbiarra kenduta, europarrak dira: Birgit Vanderbeke alemaniarra, Patrik Ourednik txekiarra, Menna Elfyn galesa, Bashkim Shehu albaniarra, Belen Gopegui espainiarra, Dubravka Ugresic kroaziarra eta Mircea Cartarescu errumaniarra. Gutun-trukean, gatazken irtenbideez gain, literaturaz eta idazleen egitekoaz ere eztabaidatu dutela azaldu zuen Xabier Paya Donostia 2016ko kultur programaren zuzendariak, eta argitalpen bakoitzean ilustratzaile banak ere parte hartu duela zehaztu zuen.

Harkaitz Cano, Arantxa Urretabizkaia, Xabier Paya, Mabi Revuelta eta J.A. Iturri, aurkezpenean. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

TOPAKETAK

Azaroaren 7tik abenduaren 16ra bitartean ekimenean parte hartu duten idazleen solasaldiak izango dira Donostian. Astelehenean, Fernando Aramburu eta Hector Abad izango dira Aquariumen, 19.00etan.

Urretabizkaiak gutunak idaztea berezia egin zaiola eta formatu horretan tratu pertsonala ekiditea zaila izan dela azaldu zuen: «Ez da erraza jakitea noraino egon den autozentsura, bagenekielako publikatua izango zela. Idazleak ez gaude lehenengo pertsonan idaztera ohituak, gure zati hori pertsonaia eta kontakizunen bidez ematen dugu, baina kozinatuta. Hemen, gordinik ematen da». Bere aldetik, Canok idazle batek «beti» publikatua izango balitz bezala idazten duela ziurtatu zuen, «pilotu automatikoa jarrita izaten dugulako. Baina egia da ere generoak eraman egiten zaituela, epistolarrak badu zerbait konfesionaletik».

Revueltak, bestalde, solasaldietara eskuz egindako kaleidoskopioak eramango dituela iragarri zuen, «proposamen isil bat egin nahi nuelako; ekintza aktiboa izango da, atsedena eskainiko duena».

El Gobierno de Nafarroa deniega la prórroga de la explotación de Alkerdi

GARA | **IRUÑEA**

El Gobierno de Nafarroa ha denegado la prórroga de la concesión de explotación de la mina de Alkerdi, situada en Urdazubi, a la empresa Mármoles del Baztán, por considerar esta actividad «incompatible» con la preservación de la zona arqueológica descubierta recientemente, en la que se hallaron importantes pinturas paleolíticas. Así, la citada empresa tendrá un plazo de dos meses para presentar ante el Servicio de Energía, Minas y Seguridad Industrial un proyecto de restauración que incluya el proyecto de abandono definitivo de las labores, según asegura el Gobierno navarro mediante una nota de prensa. Recuerda también que en junio inició un nuevo procedimiento de revisión de la concesión solicitada en 2011 y otorgada en 2013, tras la que ha decido denegar la prórroga.

XILABAKO SEI FINALISTAK, TXAPELA JANZTEKO PREST.
Erabakita geratu zen azken saioan eta atzo egin zuten agerraldi publikoa: Amets Arzallus, Maddalen Arzallus, Miren Artetxe, Odei Barroso, Sustrai Colina eta Xumaia Murua izango dira azaroaren 12an Baionan Xilabako txapelaren lehian arituko diren sei bertsolariak. Isabelle MIQUELESTORENA